



Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Ingenieria Sin Fronteras



Itzulketaren kontzeptura eta praktikara gerturatzea

GrAL/MALei buruz eztabaidatzeko eta
horien gaineko ezagutza kolektiboki
sortzeko aukera bat

Itzulketaren kontzeptura eta praktikara gerturatzea

GrAL/MALei buruz eztabaidatzeko eta horien gaineko ezagutza kolektiboki sortzeko aukera bat

IDAZLE-TALDEA:

Eva Pérez-Pons Andrade
Pepe Ruiz Osoro
Joseba Sainz de Murieta Mangado
Mònica Vega Bobo
Leire Vázquez Orobio
Unai Villena Camarero
Arrate Zelaia Eizaguirre

ARGITARATZAILEA:

Ingeniería Sin Fronteras País Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI)
info.bilbao@euskadi.isf.es // www.euskadi.isf.es
CIF/IFK: G-48699045

FINANTZATZAILEA:



ITZULTZAILEA

Garazi Arteagoitia

MAKETATZAILEA:

Binari Comunicación

INPRIMATZAILEA

Erreka Multimedia, S. Coop.

Bilbo, 2021



Creative Commons 4.0 lizentzia

Agiri honek Creative Commos lizentzia dauka. Hortaz, lan hau aske kopiatu, hedatu eta argitara daiteke, egileak aipatzen badira eta salerosketarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu edo eraldatu, ezta lan honetan oinarritutako beste lanik sortu ere.

Lizentziaren eduki osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

AURKIBIDEA

1. Itzulketa, interesa eragiten duen kontzeptu ezezaguna	4
2. Itzulketaren esanahira hurbiltzea	7
3. Ondorio metodologikoak, etikoak eta epistemologikoak	10
4. Diagnostikoa egiteko zenbait ohar	15
5. Amaierako zenbait hausnarketa bideari eusteko	19
Bibliografia	21

1. Itzulketara, interesa eragiten duen kontzeptu ezezaguna

2013az geroztik, Ingeniería Sin Fronteras País Vasco – Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzaren (ISF-MGI) ikerketarako eta hedapenerako estrategiaren baitan argitaratutako lanetako bat da.

ISF-MGI GGKEa eta unibertsitate-elkartea da. Zientzia eta teknologia hegemonikoen inguruko hausnarketa kritikoaren aldeko apustua egiten dugu, eta, aldi berean, egon litezkeen bizimodu guztiak ardatz dituzten alternatibak sustatzen ditugu, merkatuaren logiken mendeko eredu baztertzailen ordez. Unibertsitatea abiapuntu izanik, gure jarduera gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren eta nazioarteko lankidetzaren esparruan sustatzen dugu, diziplina anitzeko talde baten lanaren, esfortzuaren eta ilusioaren bidez.

ISF-MGI lehen urratsak ematen hasi zenetik, proiektu eta titulazio-lanak bultzatu ditugu, sinesten dugulako baliabide akademikoak gizarte-eraldaketaren zerbitzura jarriko dituzten arrakalak ireki daitezkeela. Aurrena, Karrera Amaierako Proiektuak (KAP) bideratu genituen, eta, ondoren, Gradu Amaierako Lanen eta Master Amaierako Lanak (GrAL/MAL). ISF-MGIk 20 urte baino gehiagoko esperientzia du mota horretako ikerketa-proiektuak diseinatzeko, laguntzeko eta egiteko.

Eraldaketa ekosozialera bideratutako GrAL/ MALei emandako laguntzari dagokionez, lan horien eraldaketa-ahalmenari buruzko azterketa argitaratu dugu, eta, bertan, ikuspegi feminista nola txertatu eta lanak ebaluatzean zer tresna eta ikuspegi erabili behar diren jorratu dugu. Oraingo honetan, itzulketaren kontzeptuak proiektu horiek zehaztean eta garatzean izan beharko lukeen garrantziari buruz mintzatuko gara.

Hala, behin sarrera eginda, 2. kapituluari azalduko dugu gure ustez zer den itzulketara egitea, ikerketa-proiektuetan, orokorrean, eta, bereziki, GrAL/MALen kasuan. Guretzat horren alderdi garrantzitsua den arren, ikusiko dugu nahiko ezezaguna dela, eta askotan ez dela aintzat hartzen ikerketa-prozesuak diseinatzean. Izan ere, lehen eta bigarren mailako informazio-iturrietan gaiari buruzko informazio gutxi topatu dugu.

Ikerketa edo GrAL/MAL batean itzulketara egiteak zentzua izateko, kolektiboki egin behar dira, hau da, hainbat eragilek parte hartu behar dute prozesuan. Ildo horretatik, oso esanguratsua iruditzen zaigu itzulketara ez aipatzeak eta haren garrantzia zalantzak jartzeak (nola egin, noiz, norekin eta zertarako), eta uste dugu asko esaten duela ikerketa-prozesuetan inplikaturako agenteei buruz eta ikerketa horiek nola eta norentzat egiten diren.

Badakigu ikerketa horiek gaur egungo logika merkantilista, utilitarista eta kapitalistei erantzuten dietela, horien menpean baitaude mundu osoko unibertsitateak. Xochytl Leyva (2019) antropologoaren arabera, kapitalismo akademikoaren izaera sistemikoak «ezagutzaren ekoizpena» aipatzen duenean, ez da deskuiduan aukeratutako terminoa. Izan ere, katetzat hartzen du, eta kate horretan, sistema akademikoaren beraren onerako ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dira ezagutzak. Zenbaitetan, irizten zaio itzulketaren prozesuak txertatzeak, aurrerapenak gizarteratzeak, eremu horiek ikerketaren norabidea alda dezaketen elkarrizketak sortzeko prest egoteak eta parte hartzen duen taldeei egokitutako komunikazio-bideak diseinatzeak, besteak beste, ikerketaren erritmoa geldotu dezaketela, eta, beraz, ez dira aitortzen edo oso gutxi aitortzen dira. Edonola ere, guk uste dugu edozein ikerketetan beharrezkoak direla, eraldaketa ekosoziala bultzatu nahi badugu.

3. kapituluaren itzulketaren garrantziaz eta aukerez mintzatuko gara, eta ikerketa-prozesuan dituen eta eduki behar dituen ondorio metodologiko, etiko eta epistemologikoen gainean hausnartuko dugu.

Izan ere, itzulketak mundu akademikoan ezagutza sortzeko maiz erabiltzen diren eredu klasikoak aurreratu egin dira. Itzulketaren esploratzean, gure jardunbideak eta metodoak aztertzen ditugu, eta, horrez gain, ikerketan parte hartzen duten pertsona guztiekin gardentasunez eta zuzentasunez jokatzeko dugu.

Ikerlanean zehar itzulketak aurreikusten dituzten ikerketa-prozesuak diseinatzeak erne egotera behartzen gaitu, estraktibismo akademikoan ez erortzeko, eta, halaber, ikerketaren norabidea, helburuak eta hipotesiak aldatzeko prest egon behar dugu, ikerketaren bilakaerari eta taldearen itxaropen eta beharrei egokitzeko. Aldi berean, gaur egungo ebaluazio-agentzien eta hezkuntza-sistemaren beraren izaera kapitalistak, utilitaristak eta produktibistak ezarritako erritmoei aurre egiten die.

Horrez gain, talde-ezagutzaren eraikuntzan itzulketak gauzatzeak pertsona eta talde desberdinek prozesu horretan duten botere-posizioak aztertzea garrantzitsua da, eta, izan ere, horizontaltasunez eta ezagutza partekatuz aurrera ahal izateko, ezinbestekoa da botere-posizioak identifikatzea eta prozesuaren jardunbideak eta uneak behar bezala diseinatzea.

4. kapituluaren 2020/2021 ikasturtean egindako inkesta baten emaitzak aztertuko ditugu. Inkesta hori azken urteotan ISF-MGIrekin batera eraldakuntza ekosozialerako GrAL/MALetan parte duten eragileei egin zitzaizen (ikasle-irakasle binomiotik haraindi joateko asmoz).

Unibertsitate Kritikoa Sarearekin (UKS) elkarlanean egindako diagnostiko txikia da, eta helburu du aztertzea zer pertzepzio, interes eta zailtasun sortzen diren ikerketa prozesuetan itzulketaren txertatzeko aukera aurreikustean. Kapitulu horretan azalduko dugun legez, inoiz ere itzulketarik egin ez dutenen ustez itzulketak zer zailtasun izan ditzakeen eta itzulketaren batean parte hartu dutenek zer zailtasun izan dituzten alderatuko dugu.

Amaitzeko, 5. kapituluan hainbat gogoeta jaso ditugu, egoera aztertzen lagundu, eta zer norabidetan egin behar dugun erabakitzeko. Itzulketarik ez gauzatzea ez da kasu gutxitan gertatzen den kontu bat, baizik eta ikerketa ulertzeko modu hegemonikoetan errotutako zerbait.

Eraldatzailea izateko, ikerketak egungo logika merkantilistak baztertu behar ditu, ahaztu behar du argitalpenak merezimenduak lortzeko baino ez dutela balio, eta kolektiboan eraiki behar da, azpitik hasita eta iritzi eta jakintza berriak ikerketaren subjektu aktibotzat hartuta, ikertutako objektutzat hartu ordez.

Laburbilduz, hurrengo orrialdeetan, amildegí ezezagun horretara gerturatu nahi dugu. Izan ere, hasiera batean beldurgarria izan daitekeen arren, lortu nahi dugun etorkizunera hurbiltzen gaitu.

2. Itzulketaren esanahira hurbiltzea

Kontzeptu garrantzitsua izan arren, ez dago itzulketaren zehatz-mehatz aztertzen duen bibliografiarik kasik. Itzulketaren nola ulertzen dugun erakusteko, lan hauetan oinarritu gara batik bat: *Una puesta en común: experiencias de devolución con enfoque de responsabilidad social universitaria en el marco del Convenio Sacsamarca* (Nevado, 2019) eta *La devolución: una metodología instituyente en investigación* (Schejter et al., 2004). Kontzeptua ulertzea, elikatzea, birpentsatzea eta praktikara eramatea da xedea.

Itzulketaren esanahia ez da berdina zabaldu gure inguruneko jakintza-arlo guztietan. Orokorrean, gehiago erabiltzen da gizarte-zientzien arloan, arlo horretan iker-tzaileak ikerketaren emaitza berarekin lan egin duten pertsonekin edo taldearekin partekatzen duenez, haren etika eta erantzukizun soziala agerian jartzen baitira. Edonola ere, bestelako eremu teknikoagoetan kontzeptu erabat ezezaguna da, eta curriculum akademikoan, ez du erreferentzia bat bera ere. Gaur egun, GrAL/MALak gizarteratzeko praktika arautu bakarra lana ebaluazio-epaimahai baten aurrean defendatzea da. Gure ikuspegitik, itzulketaren aukera anitz irekitzen dituen ariketa sakonagoa da.

Eraldaketa ekosozialerako GAL eta MALetan laguntzen aritzen den aldetik, ISF-MGI itzulketari forma eman behar zitzaiola ohartu zen, horren gainean lan egiteko gero. Nevado (2019) eta Schejter et al. (2004) autoreekin bat etorritik, itzulketaren ikerketa osoan ematen den prozesu bat da, eta prozesu horren baitan, ikerketa-taldeak eta haren lantaldeek elkarriketarako guneak sortzen dituzte. Horrela, aurkikuntzak gizarteratzen dira, eta horrek ikerketa amaitu aurretik emaitzak egiaztatzea eta lortutako aurrerapenak aztertzea ahalbidetzen du. Halaber, taldeari eskerrak emateko eta ikerketa-ildo berriak zabaltzeko aukera on bat dela deritzogu. Itzulketaren eskerrak emateko erritua hartzen dugunean, balioan jartzen ditugu erabilitako denbora, egindako lanarekiko itxaropena eta uko egin zezaketena eman izana.

Gizarte-eraldaketa bidea: Gradu Amaiako Lanak eta Master Amaierako Lanak eraldaketarako tresna gisa (Perez-Pons et al., 2019) argitalpenean adierazi bezala, uste dugu helburuak eta ikerketa ezin direla modu berezian diseinatu, eta, era berean, itzulketaren eta ikerketa edo lantaldea ere ezin dira berezita egituratu. Ikerketa edozein motakoa dela ere, itzulketaren egiteko modu bakarra ezartzen duen formula zehatza eman beharrean, uste dugu egokiagoa dela *nola* galderari erantzutea, taldearen eta prozesuaren beharrei errepertorioa eta aurrez zehaztutako eskema eta inertzietatik urruntzea. Talde bakoitzak ditu bere beharrak eta erritmoak, eta *nola* galderari modu homogeneoan erantzuteak berezitasunak al-

boratzen ditu, eta formula estraktibistak indartu¹. Ildo horretatik, Nevadok dioen bezala, ezinbestekoa da «helburua zehaztea, helburua diseinatzeko zer baldintza kontuan hartu behar diren aurreikustea, eta aztertzea zergatik den garrantzitsua helburua betetzea» (2019: 36); izan ere, «helburuaren arabera zehaztuko ditugu itzulketaren hartzaileak eta edukiak» (2019: 38). Gure ustez, adi egon behar dugu, noranzko bakarreko itzulketan ez erortzeko (hots, azalpenezkoa edo informatiboa baino ez dena), eta ahal dela, bi noranzkoko itzulketara jo, elkarrizketa sustatzeko eta jakintzak berrelikatze².

Itzulketaren azken unean baino ez dela egin behar dioen ustea oso zabaldua bada ere, azpimarratu nahi dugu guk prozesutat hartzen dugula itzulketaren. Behin ikerketa amaituta horretan parte hartu duen taldeari ondorioen berri ematea ez da ezagutza kolektiboki sortzeko modurik eraginkorrena, ezta inplikaturako eragile guztiekin batera alderdi guztien interesak biltzen dituen ikerketa bat diseinatzeko modurik onena ere. Itzulketak ikerketaren amaieran egiten direnean ere, ez lirateke prozesuaren itxieratzat hartu behar.

Horrenbestez, ikerketaren une desberdinetan elkarri eragiteko ideiak parte hartzen duten alderdi guztien arteko elkarrizketa pizteko interesari erantzuten dio. Era horretan, ikertzailea-ikertua dikotomiak hausten dira, eta batek zein beteak ezagutza aldi berean sortu eta parteka dezakete. Oso zabaldua dago ikerketan lan egiten duten talde eta pertsonak informatzaileak direla eta kanpoko iritzi bategunero bizi dutena azaltzeko zain daudela dioen ideia, eta elkarrizketara irekita gaudenean, baztertu egiten dugu ideia hori. Alderdiak «subjektu pentsakor» bihurtzen dira, edo bere egiten dute rol hori, eta «haien jardunean barneratzen dute ikerketa-esperientzia hori» (Padawer, 2008:4). Era horretan, «itzulketak» gurea ez den zerbaiti egiten dio erreferentzia, aurretik erauzia edo emana izan den zerbaiti, alegia, eta ezagutza hori ukatu ahal ziguten, informazio-trukea ez baita derrigorrezkoa, aukerakoa baizik. Alderdiak lankidetzan aritzen direnean eta elkarrekiko komunikazioa dagoenean, «azken emaitza» hasierakoaren desberdina da alderdi bientzat. Komunikazioa harremana bihurtzen da, eta harreman horretan, aintzat hartu behar dira egon litezkeen botere-harremanak, hau da, pertsona bakoitzak zer rol duen ohartu behar gara eta desberdintasunak onartu.

Lehen adierazi dugun legez, ez dago itzulketaren ikuspegi feministatik egiteko formula zehatzik, talde eta prozesu bakoitzak bere berezitasunak dituelako. Edonola ere, Ruth Nevadoren ekarpenak eta gure hausnarketak oinarri hartuta, taldearekin itzulketaren arduratsua egiteko hainbat gako zerrenda ditzakegu. Alabaina, puntu horiek betetzeak ez du nahitaz ikuspegi feminista ziurtatzen, etengabeko berrikusketaren baten hasiera baino ez delako, jakintza sortzeko beste bide batzuk eraikitze aldera:

- **Solaskideak eskubideen subjektutzat hartzea eta horren arabera tratatzea:** lan kontzientea egitea, parte-hartzaile guztiek beren eskubideak ber-

1 Hurrengo atalean, itzulketaren (edo hobeto esanda, itzulketaren faltaren) eta praktika estraktibisten arteko lotura aztertuko dugu, jardunbide horiek ikerlanetan parte hartzen duten taldeak ikerketaren zerbitzura dauden informatzaileak baino ez direla uste baitute.

2 «Atzeraelikadura» beharrean, «berrelikadura» hitza aukeratu dugu, irizten diogulako lehenak erdigunean jartzen duela jakintza, alderdi guztien eskura, alegia. «Atzeraelikadurak», aldiz, igorpen-iturriak eta haiek jasotako ekarpenak ditu ardaztat.

matuta eduki ditzaten, eta alderdien arteko harremana zuzena eta arduratsua izan dadin. Eskubideei dagokienez, erreferentzia egiten diegu parte hartzeko eskubideari, helburuen, metodoen, informazio-erabileren, onuren eta arris- kuen gaineko informazio argia eta gardena jasotzeko eskubideari eta erabakiak hartzeko edo norberaren autonomia aitortzeko eskubideari.

- **Solaskideen zaugarritasuna errespetatzea eta harekin konprometitzea:** zaugarritasuna desberdin uler daitekeela aintzat hartuta eta Judith Butler- en (2010 eta 2014) pentsamenduari jarraikiz, zaugarritasuna gizakion berezko ezaugarria dela uste dugu, eta ez «bestetzat» ditugun subjektuen ezaugarri bat. Ildo horretatik, zaugarria eta zaugarri bihurtua edo prekarizatua bereizi behar dira.

Hausnarketa horretan oinarrituz, baliteke zaugarri bihurtutako pertsonak arriskuan jartzea ikerketetan parte hartzeagatik, eta,aldi berean, haien partaidetza aktiboa izan ezean, ezinezkoa izatea haien errealitatea ezagutaraztea eta elkarrekin jakintza sortzea. Metodologia diseinatzean, funtsezkoa da bi al- dagai horiek kontuan izatea, ez ditzagun gizartearen marjinetan bizi direnak arrisku handiagoan jarri.

- **Gaia gizartearentzat egokia izatea:** ikerlanaren abiapuntua norberaren inte- resak direnean, ikerketaren garrantzia kezka partikularrei aurre egiteko eta ho- riek ebazteko duen ahalmenaren arabera da. Aitzitik, aztergai bat sozialki egokia dela ziurtatzeko, komenigarria da interes pertsonalak taldeen kideta- sunen arabera multzokatzea. Hala, ahaleginak bateratu eta partekatzen dira, lana zatikatu beharrean.

Hortaz, ikerketan norabidez aldatzea aurreikusten duten prozesu dinamikoak onartu behar diren arren, uste dugu garrantzitsua dela ikertzaileak uneoro erne egotea, aldaketa horiek ez dezaten ikerlanaren egokitasun soziala kalte- tu.

- **Inpaktuak:** Ikerketa bat onuragarria izan daiteke gizartearentzat, egoera bati ikusgarritasuna ematen diolako, edo egoera bat beste hobe batekin ordeztu nahi duelako. Alabaina, gizartearen talde bati kalte egin diezaioketen este- reotipoak ere indar ditzake. Eragin litzakeen kalteak aurreikusi behar dira, eta horiek arintzeko neurri zuzentzaileak ezarri.

Ikerketetan eztabaidarako guneak sortzearen alde gaude, gai baten gainean egon daitezkeen ikuspegiei eta interesei buruz hausnartzeko. Gune horiek ar- durari buruzko gatazkak onartu behar dituzte. Izan ere, gatazkak ikusarazteko eta ebazteko, edo, gutxienez, arintzeko, beharrezkoa da gatazka horiek jorra- tzea eta ez saihestea. Eztabaida azkenerako uzteak edota, gatazkak ekiditeko asmoz, eztabaidarik ez sortzeak lanaren aberastasunari kalte egingo dio, ikus- pegi desberdinek ematen duten informazioa galtzen delako. Gainera, horrek konpondu gabeko ezinegonak eta desadostasunak eragiten ditu.

Behin itzulketari buruz dugun kontzeptua azalduta, eta itzulketeta modu etikoan gauzatzeko gomendatzen ditugun jarraibideak kontuan izanik, hurrengo atalean itzulketaren kontzeptu hori diseinatzean eta martxan jartzean kontuan izan beha- rreko gaiak landuko ditugu.

3. Ondorio metodologikoak, etikoak eta epistemologikoak

Itzulketaren kontzeptura eta praktikara hurbiltzeak aukera ematen digu ikerketa-prozesuetan ditugun inertiak berraztertzeko. Itzulketak dakartzan ondorio etikoak eta epistemologikoak barneratzen ditugunean, hainbat aurreiritzi eta metodologia kolokan geratzen dira. Itzulketa-praktikak diseinatzeko eta gauzatzeko, ezagutza eraikitzeke ikuspegi berriak barneratu behar ditugu, eta horrek ikerlanak ulertzeko genuen moduarekin aurrez aurre jartzen gaitu, ezinbestean.

Horixe da, hain zuzen ere, GrAL/MALak laguntzeko eginkizuna izan duen ISF-MGI-ren lantaldeari gertatu zaiona. Nahiz eta 20 urte baino gehiagoz mota horretako ikerlanetan eraldaketa ekosozialaren ikuspegitik jardun garen, itzulketaren sakontasun epistemologikora gerturatzeak guk emandako laguntzaren gabeziak eta mugetako asko agerian utzi ditu, eta erakutsiko digu eragotzi nahi ditugun jardunbideetan erortzen garela gu ere. Itzulketaren munduan sartzea atzera egiterik ez duen bidaia izan daiteke, ikertzailetzat dugun nortasuna zalantzan jartzen duen bidaia, alegia.

Pertsona eta ikerketa-talde gehiago bidaia horretan murgiltzera animatzeko helburuz, atal honetan itzulketa diseinatzeak (eta ez diseinatzeak) berekin dakartzan ondorioetako batzuk azalduko ditugu. Ondorengo gogoetak nahasketa baten emaitza dira: barne-eztabaidak, elkarrizketarako topaguneetan lankideek egindako ekarpenak, eta itzulketari aurrez aurre begiratzera eta itzulketa gauzatzeko bultzada eskasa azaltzen saiatzera animatu gaituzten egileen testuak. Ziurrenik, aipatutako ondorio etiko eta epistemologiko horiei aurre egiteko beldur gara, eta, horregatik, lagundu ditugun ikerketetan, itzulketa gutxi sustatu dugu.

Parte-hartzea bultzatzea, baina zer punturaino?

Aurreko atalean jada aipatu dugun bezala, orokorrean uste denaren kontra, itzulketa ez da ikerketaren amaieran, lana ia bukatuta dagoenean, gertatzen den zerbait. Schejter et al. (2004) egileen hitzetan, «itzulketaren etapen ezaugarriak zehaztean, ez dugu itxieratzat hartzen, baizik eta ikerlanaren helburua behin eta berriz berrabiarazten duen eta ikertzaileen eta erakundeetako eragileen lan aktiboa behar duen irekieratzat».

Ikuspegi horren pean lan egitean, beharrezkoa da ikerketan zehar parte-hartzai-leek etengabean eztabaidatzea eta elkarri feedbacka ematea. Hortaz, baztertu behar da parte-hartzaileen helburua ikerketarako informazio eta lekukotasun erabilgarriak ematea (elkarrizketen, inkestren eta eztabaida-taldeen bidez) soilik dela dioen uste hori. Ikerketa osoan zehar zeharka gertatzen diren itzulketak-uneak diseinatuz, parte-hartzaileei aukera ematen diegu prozesua eta helburuak zalan-tzan jartzeko, galderak birbideratzeko eta erronka berriak proposatzeko. Era be-rean, horren eraginez, tartean dauden eragile guztientzako erabilgarriak izango diren ezagutzak eraikitze modutzat hartuko dugu ikerketa (Schejter et al., 2004).

Alabaina, eremu zientifiko-teknologikoan batik bat, zenbait ikerlanetan oso beste-lako jarrera ikusten dugu. Izan ere, zurruntasuna bultzatzen dute³, parte-hartzai-leei entzundakoaren arabera ikerketa berriz zehaztera irekita egon beharrean. Ildo horretatik, badira tarteko uneetan itzulketak eta itzulketak dakartzan bestelako ondorioek «paradigma positibistaren eredu lineala hausten dutela» esaten du-tenak (Schejter et al., 2004). Ikerlan batean ezarritakoari zehatz-mehatz jarraitu behar zaiola (eta hori aldatu behar izateak ikerlana gaizki diseinatu izanaren sei-nale dela) dioen usteari jarraitu ordez, itzulketak aukera berriak irekitzen dizkigu. Hala, prozesuak ustekabeko bideei jarraitzea, gu geu harritzea eta ikerketan parte hartzen duten eragileek adierazten dituzten interes edo kezka berriei etengabe erantzun ahal izatea ahalbidetzen du. Schejter et al. (2004) egileen arabera, ire-kitasun horrek metodologiak aldatzeko, ikerketa-galdera berriak planteatzeko eta aldagai berriak txertatzeko abagunea ere eskaintzen digu:

«Ikerlanean, hainbat itzulketak-une aurreikusten ditugu. Datuak sintetiza-tzen ditugunean ere, ikerketa ez dago itxita, eta, hortaz, galdera berriak egin ditzakegu, metodologiak zalantzan jarri eta aldatu, problemari eragi-ten dioten aldagai berriak txertatu, ordura arte jarraitutako ikerketa-pro-zesua ebaluatu eta izandako emaitzak baliozkotu, eragileek ere gure gal-deretan eta ondorioetan parte hartzen dutelako. Aldaketa horiek guztiak egin ditzakegu, ez dugulako lanaren azken unera arte itxaroten, itzulketak egiteko.»

Zer punturaino oreka ditzakegu ikerlanaren aurretiazko diseinuak eta agertzen di-ren diseinu edo egoera berriak? Unibertsitateak eragile sozialekin elkarlanean ari-tzeko prest daude, horrek prozesuak zailtzen eta malgutzen baditu ere? Zalantza-rik gabe, egungo ikerketa-dinamiken oinarrian ezkututzen den neoliberalismoari kargu hartzen dioten galderak dira. Ikuspegi horren arabera, noraino iritsi behar du ikerketa-taldearen laguntzak? Nola konbinatu daiteke apustu epistemologiko hori GrAL/MALetan ezartzen diren epemugekin eta formatuekin? Finantza-erakundeek babestutako ikerlanen kasuan, nola ulertarazi ahal zaie dinamika hegemonikoak aldatu behar direla? Ikerketa etengabe elika daitekeen prozesutzat hartzearen ideia arazoa da, ala gizarte-taldean parte-hartzean oinarritutako diseinuen ar-

3 Orokorrean, ikerketak ulertzeko modu klasiko eta hegemonikoetan, ikertzaileek zehazten dituzte helburuak, hipotesiak eta galderak, eta ezinezkoa da horiek aldatzea.

datza? Ikusten dugunez, galdera asko sortzen dira, parte-hartzearen eta parte-hartzaileen ekarpenak eta zalantzak itzulketetako elkarrizketen bidez txertatzeko moduaren inguruan.

Lateraltate-aniztasuna bultzatzea eta... kontrola partekatzea

Agiri honetan zehar, behin eta berriz errepikatu dugu itzulketa ez dela ikerketa-taldeek proiektuaren amaieran azterlanaren ondorioak transmititzea, eta garrantzitsua dela kontzeptu horrekin haustea. Aski hedatuta dagoen arren, itzulketa-ren kontzeptu horrek ez ditu hausnarketa-prozesu eraldatzaileak eta kolektiboki sortzeko prozesuak bultzatzen. Izan ere, «jakinduria norabide bakarrean eramaten duen prozesua gauzatzen eta erreproduzitzen du, eta, ondorioz, ikerlanean egindako aurkikuntzen gaineko elkarrizketa produktiboa galarazten du» (Padawer, 2008). Guk ulertzen dugun bezala, itzulketa ikerketaren zati diren eragileen arteko elkarrizketa jarraitua diseinatzean eta gauzatzean datza.

Hori bai, elkarrizketa hori burutzean, erronka handiei aurre egin beharko zaie eta ezagutza eraikitzeke prozesuaren barneko rolak ulertzeko modu berriak ekarriko ditu. Iritzi guztiak kontuan hartzen dituen eremu baterako baldintzak sortu ahal izateko, aurretiazko botere-harremanak/pribilegio-harremanak aztertu behar dira, eta erauzi nahi ditugun zapalkuntza-harreman horiek ez erreproduzitzen saiatu. Itziar Gandariasek (2014) adierazten duen moduan, garrantzitsua da kontuan hartzea botere-desberdintasunak ez direla soilik parte-hartzaileen eta ikerketa-taldearen artekoak, eta parte-hartzaileen euren artean dauden asimetriak ere aztertu behar direla (hau da, hizkuntzaren, klasearen, ezagutza-mailaren... ondorioz dauden desberdintasunak), ikerketan zehar tirabirak sor ditzaketelako.

Ikerketa baten inguruko sentikortasun guztiak bildu nahi baditugu, horizontaltasunaren alde egiten duen diseinu zorrotza behar dugu. Zerbait eragilek nahitaez atzera egin beharko dute, ordura arte botererik ez zutenen mesedetan. Schejter et al. (2004) autoreen arabera, ikerketa-taldea eta gainerako eragileak «pentsalari-kide» bilakatzen dituen baliabideak diseinatu behar dira. Ildo horretatik, ikerketan zehar sortutako emaitzen egiletza ere zalantzan jarri beharko genuke: ikerketa-taldea al da egilea oraindik ere? zer baldintza bete behar dituzte gainerako eragileek egiletzat hartzeko?

Parte-hartze eskema horren barruan, parte hartzen duten eragileen artean banatzen da ikerketa-proiektua diseinatzearen eta burutzearen erantzukizuna. Hala, aurretiazko rolak desagertzen dira, eta baliabideak ahalbidetzea, lana teorikoki kokatzea eta sistematizatzea dira ikerketa-taldearen ardura berriak. Orain arte, ikerketa-taldeak izan du ezagutza eraikitzearen monopolioa; baina, itzulketan eragiten diren deliberazio-elkarrizketen ondorioz, ikerketaren urrats bakoitza interes kolektiboen emaitza izango da.

Habitar las incomodidades en investigaciones feministas y activistas desde una práctica reflexiva artikuluan, Itziar Gandariasek (2014) hausnarketa feministek egindako zenbait eskaera jaso zituen, hein handi batean itzulketak dakartzan elementuekin bat datozenak. Besteak beste, aipatu zuen ikerketa-prozesuak iker-tzaileari eragin diezaiokeela eta hura molda dezakeela, eta, sarritan, ikerketaren hasieran planteatutako helburuak gainditu ere egin ditzakeela. Horrez gain, botere-harremanak aldakorrak direla ikusteko eta gure gain hartzen ditugun botere-harremanak adosteko aukera ematen digu. Azkenik, ziurgabetasuna onartzera eramaten gaitu, ikerketak zer norabideri jarraituko dion ez dakigulako.

Zauri kolonialei parez pare begiratzea

Aurretiaz adierazi dugun bezala, itzulketak esan nahi du atera dugun zerbait, gurea ez den zerbait, aitortzea eta baloratzea. Itzulketarik egiten ez denean, elkarlanean ari diren subjektuak, eskubidedun subjektutzat edo eragiletzat hartu ordez, ikerketaren zerbitzura dauden elementutzat hartzen dituzten praktika estraktibistak sortzen dira. «Ikertzaileak haien esperientzia maneiatzen eta kontrolatzen du», eta ez daukate erantzuteko eskubiderik. Ondorioz, elkarrekin eraikitzeo aukera ukatzen zaie, eta ikerlanean egindako ekarpenak ikusezin bilakatu (Nevado, 2019: 52). Behin komunitate zientifikoan aurkeztu, birformulatu eta baliozkotu beharreko informazioa lortuta, ikerketa-taldearen eta harekin lan egiten duen taldearen arteko harremana bukatzen da. Jokabide estraktibista horiek, etika gutxiakoak izateaz gain, elkarlanean aritzen diren pertsonak tresna bihurtzen dituzte, objektutzat hartuz eta informazio-iturri huts bilakaturik. Era berean, ikerketaren subjektuei objektu hutsak direla sentiaraz diezaiokete, eta, ondorioz, baliteke bestelako ikerketetan parte hartu nahi ez izatea.

Aipatutako jardunbide estraktibista horiek jakintzaren kolonialismoarekin lotuta daude Oraindik ere, jardunbide akademikoen ezagutza eraikitzeo moduek objektu bihurtu eta gutxietsi egiten dituzte milaka urtetan zehar kalte kognitiboak jasan dituzten komunitateak eta herriak. Ezagutza deskonolizatzeko bidea sakona, konplexua eta premiazkoa da, eta beharrezkoa du elkarriketa deliberatzaile, kokatua eta horizontala sustatzea, itzulketa-jardunbideen bidez.

Itzulketak —irekitzeko eta kolektiboki eraikitzeko prozesutzat hartuta— proiektu akademiko askotan nagusi den jakintzaren logika kolonialarekin hausten du. Ikerketa-prozesuaren elementu guztiei eragiten die logika kolonial horrek, eta horretan, arduradun delakoak «jarraitu beharreko urrats guztiak, denborak eta lortu beharreko emaitzak zehazten ditu, eta, askotan, emaitzak diziplina mugatuta geratzen dira eta iniziatu-talde txiki batek baino kontsumituko ez duen hizkuntza adituan adierazten dira» (Leyva, 2019: 347). Ezagutza eraikitzeo modu horietan, ikertzaile-talde batek kontrolatzen ditu helburuak, merezimenduak eta egiletza,

eta historian zehar metatutako botereaz baliatzen da arrakala koloniala handitzen jarraitzeko.


Ezagutza eraikitzeke prozesuetan historikoki baztertu diren herri indigenek egindako eskaera etikoaren eta epistemologikoaren erakusgarri, hona hemen Madre de Dios barrutian (Peru) kokatuta dagoen Puerto Luz komunitate natiboko Yesica Patiachi (2018) artista eta irakasle harakbutak egindako adierazpena, Peruko Unibertsitate Pontifikal Katolikoak (PUCP) antolatutako ekitaldi batean: «Herri indigenok ez dugu nahi museoak bagina bezala azter gaitzaten (...) Ez dugu kultura ikusezina izan nahi, testu akademikoetan, unibertsitateetako testuetan ikusgai den errealitatea baizik (...) Baina, jaun-andreok, hau ez da eskatzen dizuegun zerbait, eskubidez dagokigun zerbait baizik, Amazonako herri indigenoi zor diguzuen zerbait».

Ikusten dugunez, itzulketaren ondorioak onartzeak ezagutza eraikitzeke prozesuen funtsezko alderdiekin lotuta dago. Irekieratik parte-hartze horizontalera doazen gordiar korapiloak, parte hartzen duten eragileak aitortzeko moduak, jardunbide estratiktibista arruntak baztertzea, ikerketak diseinatzeko modu malguagoak eta deliberatzaileagoak... Horiek guztiak jorratu behar ditugun erronka konplexuak dira, eta, agian, itzulketak diseinatuz, ezagutza eraikitzeke modu berri horiek irudikatzen jarraitu ahal izango dugu.

4. Diagnostikoa egiteko zenbait ohar


Gaur egun GrALen eta MALen bidez sustatzen diren ikerketetako itzulketa-prozesuen analisisan aurrera egiteko asmoz, ISF-MGIk diagnostiko txikia egin zuen, Unibertsitate Kritikoa Sarearekin (UKS) elkarlanean. Ikusi nahi genuen zer puntu-raino ezagutzen eta gauzatzen duten itzulketa ikerketetan parte hartzen duten eragileek, hala nola irakasleek, ikasleek, gizarte-mugimenduek, elkarteek, GGKEek, enpresek eta herri-administrazioek. Halaber, gaiaren gainean duten interesa ere ezagutu nahi genuen.

Lagin txikia izanik (50 parte-hartzaile), inkestaren xedea ez zen inongo errealitatea islatzea. Helburua zen pertzepzioak, sentimenduak eta bizipenak ezagutzea, ikerketetan itzulketa zer punturaino ezagutzen eta aplikatzen den azaltzen laguntzeko. Inkestan parte hartu zuten gehienak irakasleak eta ikasleak izan ziren (% 36.0 eta % 38.0, hurrenez hurren), eta datu horrek argi erakusten du ISF-MGIra iritsi ohi den populazioa; izan ere, GGKE izateaz gain, unibertsitate-erakunde ere bagara. Parte-hartzaile gehienak emakumezkoetat zuten haien burua (% 62.0), eta bigarren postuan zeuden gizonezkoetat zutenak (% 30.0). Gainerakoek «ez-binario» aukera hautatu zuten, ala ez zuten haien sexua/generoa zehaztu nahi izan.



1. irudia: Inkestaren parte-hartzaileen irudikapen grafikoa, itzulketa-prozesuetan parte hartu duten ala ez eta zer rol izan duten kontuan izanik.

Aurreneko hurbilketa honetan, deigarria izan zaigu zeinen gutxi ezagutzen den itzulketaren kontzeptua. Horren ondorioz, jakina, gutxik parte hartzen dute mota horretako prozesuetan. Inkestaren datuei helduz, galdetutako pertsona gehienek ez zuten itzulketaren kontzeptua ezagutzen, eta behin definizioa azalduta, adierazi zuten ez zutela inoiz horrelako prozesuetan parte hartu (% 56.0 kasu bietan, ikus 1. irudia). Kontuan izanik ISF-MGIk eraldaketa ekosozialarekin lotutako profila dutenen pertsonetara iristeko aukera handiagoak dituela, inkestaren datuak are deigarriagoak iruditzen zaizkigu, eta ikerketa-eremu konbentzionaletan itzulketaren gaineko ezjakintasuna zer punturaino handiagoa izango den galdearazten digute. Nabarmendu behar dugu gehienek onartu zutela itzulketa garrantzitsua dela, nahiz eta ez duten horrelako prozesuetan inoiz parte hartu. Ondorengo grafikoan, ikus daiteke pertsona gehienek puntuaziorik altuena (7) eman ziotela itzulketaren garrantziari.




2. irudia: Itzulketaren garrantzi-mailari buruzko emaitzak inkestan.

Hortik aurrera, inkesta bi alderditan banatzen da: lehenik, itzulketa-prozesuetan parte hartu izan dutenen iritzia jasotzen ditu, eta, ondoren, lagin osoak erantzuteko galdera generikoak daude. Parte hartu izan ala ez, inkestatutako guztiei itzulketarekin lotutako zailtasunei buruz galdetu genien (itzulketarik egin bazuten, zer zailtasun izan zituzten, eta itzulketarik egin ez bazuten, zer zailtasun uste zuten izango zituzketela).

3. irudian, kolore urdineko erantzunei erreparatuz gero (itzulketa-prozesuak burutu izan dituztenek aurkitutako zailtasunak), ikusiko dugu denbora falta eta ordutegiaren bateraezintasuna izan zirela zailtasun nagusiak (balorazio metatuak 113 eta 100 dira, hurrenez hurren). Bestalde, azpimarratu zuten unibertsitateak ez laguntzarik duela ematen eta prozesua gauzatzeko tresna gutxi daudela (balorazio metatuak 85 eta 80 dira, hurrenez hurren). Nahiz eta zailtasunak izan, itzulketa-prozesuren batean parte hartu izan duten pertsona gehienek prozesuan zehar tarteko itzulketak egin zituzten, prozesuaren amaieran itzulketa bakarra egin ordez.

■ Zein zailtasun aurkitu dituzu?
 ■ Zein zailtasunekin topo egingo zenuela uste duzu?



3. irudia: Itzulketa-prozesuen zailtasun errealeen edo ustezkoen gaineko inkestaren emaitzak.⁴


Aurretik aurkeztutako balorazioak aztertu eta kolore grisez dauden balorazioekin (ustez izango lituzketen zailtasunak) konparatuz gero, iruditzen zaigu deigarriena ez dela azpimarratutako dimentsioa, balorazioen magnitudea baizik. Zentzu horretan, itzulketa-prozesuetan inoiz parte hartu ez duten pertsonen puntuazio handiagoak eman zizkieten zailtasunei. Hortaz, itzulketa-prozesuetan parte hartu izan duten pertsonen puntuazioekin alderatzen baditugu, pentsa dezakegu, behin terminoa ulertuta, nahiz eta prozesua beharrezkoa dela onartu, inoiz parte hartu ez dutenek berez dena baino zailago ikusten dutela.

Puntuazio handiena izan zuten oztopoei dagokienez, aldeak ikus daitezke. Orokorrean, prozesu horietan esperientzia dutenek adierazitako zailtasunekin bat etorri arren, beste bi oztopo berri azaldu ziren puntuazio handiena jaso zutenen artean: itzulketak ikerketaren planteamenduan sartu ez izana, eta terminoa ez ezagutzea. Alde horien arrazoia izan daiteke zailtasunen zerrendan itzulketa gauzatzea eragotzi zuten oztopoak ere jaso zirela. Ez bada kontzeptua ezagutzen eta ez bada ikerketa planteatzean kontuan hartzen, nekez egingo da.

Itzulketa egiteko arrazoiei buruz galdetutakoan, itzulketa egiteko arrazoi nagusiak azpimarratu zituzten, hala nola konpromiso etikoa, jardunbidea ikerketetan funtsezkoa dela onartzea eta interes pertsonala. Lan egin zen taldeari zer ekarpen egin zitzaion aztertzean (4. irudian jasotakoa), nagusi izan ziren ikerketaren eragile aktibotzat aitortzea eta etorkizunerako ikerketa-ildoak sortzea.

⁴ Grafikoan, parte-hartzaile guztien erantzunak metatuta azaltzen dira, hau da, zutabe bakoitzak inkestatutako pertsona bakoitzaren balorazioen batura da. Balorazioetan, 1 zen puntuazio okerreana, eta 7, berriz, onena.

Zure ustez, zein ekarpen egin zion itzulketa prozesuak kolektiboari?




4. irudia: Itzulketa-prozesuetan kolektiboari egindako ekarpenei buruzko inkestaren emaitza metatuak.

Bestalde, prozesuak itzulketa egin zuenari egindako ekarpenari buruz hausnartzean, ikerketa taldearen interesekin bat etortzea eta ikerketan parte hartzen duten pertsonen eta taldeen artean gertuko harremanak sortzea izan ziren gehien azpimarratutako alderdiak, eta horien ondotik, gizartearentzat erabilgarria den ikerketa batean parte hartzearen sentsazioa.

Azkenik, inkestak parte-hartzaile guztiei galdetu zien zer elementu behar diren itzulketa-prozesuak bultzatzeko edo hobetzeko. 5. irudian ikus dezakegun bezala, plan akademikoetan eta erakundearen edo entitatearen plan akademikoetan eta ekintza-planetan kontzeptua sartzeko premia izan zen puntuazio handiena jaso zuena. Kezka horiek guztiak ikusita, espero dugu gida honek bere harri-koskorra ekarriko duela, kontzeptua ezagutarazteko eta plan horietan sartzeko sustatzeko.

Zer elementu beharko lirateke itzulketa-prozesuak bultzatzeko eta/edo hobetzeko?



5. irudia: Itzulketa-prozesuak bultzatzeko eta/edo hobetzeko beharko liratekeen elementuei buruzko inkestaren emaitza metatua.

5. Amaierako zenbait hausnarketa bideari eusteko

2019an ISF-MGIren baitan *Gizarte-eraldaketarako bidea: Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak eraldaketarako tresna gisa* lan-koaderno argitaratu genuenean, bagenekien hainbat muga zeudela ikerketetan genero-ikuspegia txertatu ahal izateko. Hala ere, ikerketa feministaren metodologietan murgiltzea erabaki genuen, ezagutzak eraikitze modua bera zalantzan jartzeko asmoz. Posizionamenduan izandako bilakaera horrek GrAL/MALetan laguntzeko moduetan bide berriak aztertzea eraman gintuen, eta, era berean, ikusarazi zigun lan handia dugula egiteke, eraldaketa ekosozialera bideratutako ikerketak sustatu nahi duen erakundea garen heinean.

Itzulketak ikerketa feministen metodologiak osatzen dituzten elementu anitzetako bat baino ez da. Alabaina, agiri honetan jada argudiatu dugun legez, itzulketak alderdi etikoak, metodologikoak eta epistemologikoak iraultzen ditu, harekin lotutako jardunbide zehatzen bitartez. Nahitaezkoa da estraktibismotik aldentzeko, akademiaren eta gure ikerketen rola zalantzan jartzera gonbidatzen gaitu, baldintza etikoa da, eman beharreko urratsa.

Aitzitik, eraldaketarako ahalmen izugarria duen arren, ez da apenas ezagutzen eta praktikan jartzen, ezta eraldaketa ekosozialarekin lotutako sektoreetan ere, eta itzulketaren inguruan zehazki sortutako bibliografia txikian baino ez da aurkitzen. Gure susmoa da errealitate horiek guztiak lotuta daudela. Itzulketak dakartzan ondorio etikoen eta epistemologikoaren garrantzi hori izan daiteke gure gabeziei aurre egitearen beldur izatearen arrazoia.

Aldi berean, ISF-MGIren barruan itzulketari buruzko hausnarketa kolektiborako prozesua ireki dugunetik, sustatu ditugun jardueretako bakoitzak interesa eragin duela ohartu gara. Itzulketari buruzko elkarrizketa kolektiboa bultzatzeko antolatu genituen bi topaketetan⁵, gure jardueretan izan ohi dugun batez besteko bertaratze-maila gainditu genuen. UKSrekin batera diseinatutako inkestan ere, partaidetza-maila handia izan genuen. Hain zuzen ere, inkesta horretan, erantzun gehienek puntuaziorik handiena eman zioten itzulketak gauzatzearen garrantziari (itzulketa ezagutu eta itzulketak-prozesuetan parte hartu izan dutenek, nahiz ez dutenek ezagutzen eta ez dutenek parte hartu). Ez dugu abiarazten ditugun ekimenetan horren harrera ona izaten beti. Oso kontuan hartuko dugu.

⁵ Topaketa hauek antolatu genituen: *Itzulketak-praktikaren inguruan: elkarrekikotasun- eta irekiera-ariketa*, 2021eko maiatzaren 6an online egin zena, eta *Itzulketari buruzko elkarrizketak: itzulketak gauzatze garrantzia eta oztopoak*, Bilboko Ingeniaritza Eskolan, 2021eko azaroaren 15ean egin zena.

Itzulketaren kontzeptuari buruzko ezagutza falta guk ikusitakoa bezain handia denean, honakoaren moduko argitalpenek kontzeptuaren funtsak eta garrantzia gizarteratzeko balio dezakete. Hala ere, ezin gara horretan geratu. Ohartu gara elementu asko aktibatu behar direla, itzulketan parte hartzen duten eraldaketa ekosozialeko prozesuetan inplikaturako pertsonen kopurua handitzeko. Itzulketan eskatzen eta baloratzen ez duen unibertsitate bateko lanpostua galtzearen beldurra, denbora luzez izandako gutxiespen akademikoak eragindako kalteen jomuga bihurtzearen beldurra, norberaren bizitza eta unibertsitateko epeak bateratzeko ezintasuna... izan ziren ISF-MGIk antolatutako topaketetan azaleratutako beldurretako batzuk. Ikusten dugunez, gizartearen gehiengoaren onuraren alde egin ordez, burokrazia eta merkatuaren interesak lehenesten dituen akademia baten ardatz diren alderdiak aipatu zituzten.

Akademiaren beste etorkizun batzuetara aurrera egin ahal izateko, pentsatu behar dugu nola sortu eta transmititu nahi dugun ezagutza. Etorkizun horiek eraikitzeak berekin dakar ikerlanak kolektiboan gauzatzeak dakartzan beldurrei, mugei eta konplexutasunari aurre egitea.

Oraingoz, argitalpen honen bidez, itzulketaren garrantzia kokatzeko esparru teorikoa eta gogoeta eskaini ditugu. Oraingoz, kontzeptua hedatzera eta interesa duten eragileekin loturak sortzera bideratuko ditugu ahaleginak. Gerora, erronka berriak aurreikusten ditugu, akademia zaharkitua eta autoerreferentziala zartzeko aukerak, alegia. Espero dugu hurrengo urratsak zuekin emango ditugula.

Bibliografía

BUTLER, Judith (2010). *Marcos de Guerra. Las vidas lloradas*. Buenos Aires: Paidós.

BUTLER, Judith (2014). *Repensar la vulnerabilidad desde la resistencia*. Hitzaldia. Alcalá: Universidad de Alcalá. Eskuragai hemen:

<http://paroledequeer.blogspot.com/2014/06/repensar-la-vulnerabilidad-por-judith.html> [Kontsulta-data: 2022/01/27]

GANDARIAS GOIKOETXEA, Itziar (2014). “Habitar las incomodidades en investigaciones feministas y activistas desde una práctica reflexiva”. *Athenea Digital*, 14(4), 289-304.

LEYVA, Xochitl (2019). “Poner el cuerpo” para des(colonizar) patriarcalizar nuestro conocimiento, la academia, nuestra vida. ICAZA, Rosalba eta LEYVA, Xochitl (Coords.). *En tiempos de muerte: cuerpos, rebeldías, resistencias*. México: Cooperativa Editorial Retos. (339-362)

NEVADO CHÁVEZ, Ruth Janet (2019). *Una puesta en común: experiencias de devolución con enfoque de responsabilidad social universitaria en el marco del Convenio Sacsamarca*. Lizentziaturako tesia. Lima: Peruko Unibertsitate Pontifikal Katolikoa.

PADAWER, Ana (2008). Contra la devolución: aportes de los conceptos de implicación y diálogo para las investigaciones antropológicas en contextos de gestión educativa. *Centro de Estudios Interdisciplinarios en Etnolingüística 113 y Antropología Socio – Cultural*, 16, 1 – 6.

PATIACHI, Yesica (2018). *Siguiendo al Papa Francisco: nuestra casa común, corrupción y violencia contra la mujer, las niñas, niños y adolescentes*. Hitzaldia. Peru: Peruko Unibertsitate Pontifikal Katolikoa. Eskuragai hemen:

https://educast.pucp.edu.pe/video/9863/aula_magna_especial_siguiendo_al_papa_francisco_sobre_nuestra_casa_comun_corrupcion_y_violencia_contra_la_mujer_las_ninas_ninos_y_adolescentes [Kontsulta-data: 2022/01/27].

PÉREZ-PONS ANDRADE, Eva, RUIZ OSORO, Pepe, SAINZ DE MURIETA MANGADO, Joseba, VÁZQUEZ OROBIO, Leire, VEGA BOBO, Mònica eta VILLENA CAMARERO, Unai (2019). *Gizarte-eraldaketarako bidea: Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak eraldaketarako tresna gisa*. Bilbo: ISF-MGI.

SCHEJTER, Virginia; SELVATICI, Laura; CEGATTI, Julia; SAMARELLI, Marisa; BARCELÓ, María E; DE RACO, Paula; PIACETINI, Sergio (2004). La devolución: una metodología instituyente en investigación. *XI Jornadas de Investigación en Psicología, Facultad de Psicología, Universidad de Buenos Aires*, 4(2), 116-118.

